

## Liburuen gida atera dute Markina-Xemein eta Ondarroako bibliotekak

Markina-Xemein eta Ondarroako bibliotekak Iurreta, Durango eta Ermuako bibliotekin elkarlanean, gida bat atera dute liburuen gomendioekin. Negukoa da kaleratu duten lehenengoa, baina, urtean lau gida ateratzea izango dute helburu. Gida bost ataletan banatuta dago. Lehenengo laurak adin tarteak hartuta banatu dituzte, eta azkena gai bateri lotuta joango da, oraingoan Siria da aukeratu dute.

### Gomendioak

Familientzako gomendioak, lehen hitzak, umeei begira egindakoak, eta helduentzako aukerak aurkitu daitezke gidan. Familiei dagokionez, lau gomendio emon dituzte bibliotekak: Itziar Zubizarreta eta Aitziber Alonsoren Jolas-molas: jolasean aritzeko poematxoak eta kantuek, Anjel Lertxundi eta Antton Olariagaren Batbirulau!, Maja Pitamic-en Enseñame a hacerlo sin tu ayuda, eta Hazi hezi: etxerako heziketa aldizkaria.

Lehen hitzen atalean, Emile Jadoulén Kili-kili, Severine Cordier eta Cynthia Lacroixen Irudidun hiztegia, Yasushi Murakiren Amatxo eta ni eta Baptiste Amsallem eta Loic Dauvillierren Dino y Pablo: juegos prehistóricos proposatu dituzte.

Ume eta helduen atalean, eta Siria gaia lantzeko, zortzina aukera luzatu dizkiete irakurleei bibliotekak.